

SEGURTASUN NEURRIAK. Euskal Herri osoan indarrean jarriko diren neurriak aztertu dituzte herri mugimenduek

Zigorrak gogortzea kezkarritzat jotzen diren gizarte erakundeetako kideek

Arazoak ez direla konponduko eta eskubideak are gehiago murriztuko direla uste dute

Iñaki Petxarroman | DONOSTIA
Aitor Renteria | BAIONA

Espainiako Gobernuak etorkinak eta delitu egile txikiak gehiago zigortuko dituen zigor kodearen erreforma onartu zuen atzo, Ministroen Kontseiluan: hain zuzen ere, lau falta egitea delitu izango da aurreantzean; etorkinak Espainia eta Hego Euskal Herritik egotzi ahal izango dituzte, sei urtez azpiko delitu bat egiten badute; delitu bera egitea larrigarritzat joko da, eta delituari dagokion gehieneko zigorra ez ezik, hurrengo mailako delituari dagokiona ere jarri ahal izango da.

Ministroen Kontseiluak onartu ostean, Espainiako Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak eta Estatuko Fiskaltza Nagusiak eman beharko diote oniritzia. Jose Maria Michavilla Espainiako Justizia ministroak atzo adierazi zuenez, Zigor Kodearen aldaketa «herritarren segurtasunerako ezinbesteko tresna» izango da: «Horrela, lasai ibili ahal izango gara kalean, poltsa edo sakelako telefonoa lapurtuko diguten beldurrik gabe». EGUNKARIAK Frantziako eta Espainiako gobernuak onartzekotan diren neurri buruz itaundu die gizarte elkartetako hainbat ordezkari. Denak bat datoz: «kezkarriak» dira neurriak.

HEGO EUSKAL HERRIA

AGUSTIN UNZURRUNZAGA
(SOS Arrazakeriako kidea)

«Neurri populistak dira, etekin politiko-ekonomikoa ateratzeko eginak»

Agustin Unzurrunzaga SOS Arrazakeriako ordezkariak garbi du neurriek ez dutela ezer



MANUEL H. DE LEON / EFE

ESPAINIAKO ZIGOR KODE BERRIA. Espainiako Gobernuak Justizia ministro Jose Maria Michavilla eta presidenteorde Mariano Raxoi, atzoko Ministroen Kontseiluaren ostean.

onik ekarriko berez zaila den etorkinen bizimodurako. «Oso neurri demagogikoak dira. Gobernuak bi urte daramatza etorkinak eta delitua uztartzen, eta hor etorkinak kulpa hartzailearena egiten dute. Hala hartzen dituzte, gauza guztien errudun gisa. Hori oso merkea da, oso erraza da, eta, bestetik, etekin politiko eta batez ere elektoralak ematen ditu. Udal hauteskundeak bertan daude, eta Europako beste herrialdeetan izaten ari diren egoerak aprobeixatu nahi dituzte; hor daude Frantziako kasuak, Austriakoak, Holandakoak... Oso neurri populistak dira».

Garbi dago, ordea, etorkinei bizitza zailduko diela, eta herrialdeetako egozterako trabak ken-

tzen direla, delitu bat leporatzen zaien bezain laster epaileak frogatu beharko duelako kontrakoak, alegia: etorkinak bertan geratu behar duela, bertan denbora luzea daramalako bizitzen. «Epaile gehienek paso egingo dute, kontuan hartuta, gainera, oso epe laburrak izango dituztela herrialdeetako botatzeko prozedura etetea».

Emakumeen genitalak moztearen inguruan aurreikusten duen aldaketa ere «neurri demagogikoa» iruditzen zaio. «Orain arte, gehienetan, Espainiako Gobernuak nahiko axolagabea izan da gai horrekin. Beste administrazio batzuek ardura handiagoa erakutsi dute, eta gaia ikertu dute. Orain, bat-batean, hori egin beharrean, lehen

pausoak zigor kodea gogortzea hautatu du Gobernuak, aurretik delitu hori onartuta dagoen... Iruditzen zait hor ere beste neurri demagogikoa bat dagoela».

TERE SAEZ (Andrea elkarteko kidea)

«Kartzelarekin eta zigorrak gogortuz ez dira konponduko arazoak»

Tere Saezen irudiko, zigor kodea aldatzea «atzera egitea» da. «Zigorrak gogortzea eta kartzela besterik ez du planteatzen. Gure ustez, horrela ez da arazo bakar bat ere konpontzen. Arazo ekin behar zaie pertsonen pentsamenduaren aldaketaren aldetik, bergizarteratzeko atea irekita utzirik».


Emakume etorkinen bizitzan eragin kaltegarria izango duela garbi du: «Giza eskubide oinarrikoak murriztuko zaizkie». Halaber, genero indarkeriari dagokionez, sexu jazarpenaren zigorrak handitzea ez zaio nahikoa iruditzen: «Gobernuak egin behar duena da genero indarkeria bere osoan hartuko duen lege bat onartzea, eta hori ez du egin nahi». Izan ere, orain planteatzen duen guztia egin daiteke lehendik ere dauden legeekin. «Horretarako, dauden legeak aplikatu beharko lituzkete epaileek, eta hori ez dute egiten». Hala ere, garbi dauka gai hau ez da konponduko zigor kodea gogortuz. Emakumeen genitalen moztea ere ez da etengo Gobernuak planteatzen duen gisara, bere ustez. «Kultur aniztasuna bultzatu behar da, kultur bakoitzak dituen arlo kaltegarriak baztertu eta onak hartuz. Jakina, genitalen moztea da baztertu beharreko horietako bat, baina hori ez da egiten jendea zigortuz edo kartzelara eramanez. Uste dut oraindik ere modu okerragoan egingo dela genitalen moztea, alegia, etorkinak oportetara doazenean edo hemendik botatzen dituztenean».

KEPA TAMAMES (ATEA, Animalien Tratu Etikorrako Erakundeak)

«Ontzat joko genuke, baina beldur gara iruzur propagandistikoa ez ote den»

Animalien aurkako tratu txarrak falta izatetik delitu izatera pasako dira, berez, zigor kodearen aldaketarekin. Berez ez da aurrerapauso txikia animalien eskubideen defentsan ari diren elkarte eta pertsonentzat, baina ez dira askorik fidatzen. «Delitu izatera pasatzen bada, berez ona da, baina gerta liteke beste askotan bezala, alegia, herritarrei bidaltzen zaien mezu propagandistikoa bat gehiago izatea».

Izan ere, Tamamesek ondo gogoan du orain dela hilabete gutxi batzuk —iazko apirilean— 600.000 sinadura bildu zirela Espainia eta Hego Euskal



IRUÑA'KO SAGARDOTEGIA
ETA GARNATXA ARDOTEGIA

TRADIZIO GARAI DA
SAGARDOTEGI GARAIA DA
ZURE MAHAIAN EUSKAL HERRIKO OKELARIK ONENA

Joaquin Beunza, 17 • 31014 Iruñea • Tel.: 948 38 46 70